

PELLO ZUBIRIA

Emakumeak deika Japoniako haurrak salbatzeko eskatuz

Urriaren 27tik azaroaren 5a bitartean bildurik egon dira ehunka emakume Tokion energia eta industria ministerioaren aurrean. Bi aldarrikapen zeuzkaten: Fukushima hiritik atera ditzatela haurrak eta gelditutako zentralak ez ditzatela berriro abiarazi. Fukushimako 100 emakumek hasi dute mugimendua.

TOKION, NEW YORKEN, PARISEN eta munduko beste zenbait hiritan eserialdiak egin dituzte urriaren 27tik azaroaren 5a bitartean. Frantziakoak *Sortir du Nucleaire* sareak antolatu zituen, frantsesaz gain bretoiez eta euskaraz –oso zuzen!– idatzitako afitxarekin: “Fukushimako emazteei gure elkartasun osoa Tokioko *sit-in*-ean”.

Mundu osoari elkartasun eskaria zabaldu diote Fukushimako 100 emakumeek. Hain esanekoak izateko fama duten japoniarrak gero eta gehiago ari dira protesta egiten kalean, ikusi besterik ez dago Interneten aurkitu daitezken bideo ugariak. Nekazariak azaltzen dute haserrea, herritarrek beren gisan edo munduko talde ekologisten laguntzekin erradioaktibitatea neurtu eta jakinarazten dute (agintarien informazioak gezurtatuz)... eta orain amak mobilizatu dira.

"No more Nuclear Power" 100 Women from Fukushima bideoan laburbildu dute beraien kezka. Hairo Action elkartean ari den Ruiko Mutok esan du jendeak hartu behar duela arazo hau eskuetan, egoera aldatzeko. Haurrak Erradiazioetatik Babesteko Fukushimako Taldekoa den Sachiko Satok esan du: “Ezin ditugu haurrak salbatu handik atera-tzen ez baditugu. Dagoeneko ez zaigu sutan dagoen

etxea axola, umeak salbatu behar ditugu”.

Hurrengo irudietan Sato andrea mintzo da agintariekin egindako bilkura batean. Fukushimako eskola bateko jolastokian hartutako lurra ekarri du. Mahaian ipini eta geiger kontagailua hurbildu diotenean hau erradioaktibitatea salatzen hasi da zarataka. “Orduko 30 microSiervert markatzen du, baina agintariekin diote ez dela arriskutsua”.

Egun horietako eserialdietan bi eskari zehatz egin dituzte. Bata, kutsatuta dauden lekuetatik haurrak ateratzea. Horretarako Gobernuak familiak diruz eta azpiegituraz lagundu beharko litzuzke, sorterritik urrun bizileku berria antolatzeko. Gainerakoan, gurasoek beste inon etxebizitza eta lana aurkitu ezean haurrak kutsaduraren preso gelditzen dira.

Bigarren eskaria da Japoniako zentral nuklear guztiak ixtea. Lehen urratsa litzateke azken hilabeteetan itzalita daudenak berriro ez abiaraztea. Irekitezear direnetakoa da Tomari 3 zentrala, Japoniako iparraldean. Honek erregaitzat erabiliko du MOX famatua, plutonioa daramana, berrikitan istripu hilgarria jasan duen Frantziako Marcoulen produzitzen dena. Horregatik ere badauka halako oihartzuna Frantziako Fukushimako 100 emakumeen borroka baketsuak.

Green Act erakundeak sarean laga duen irudi honetan emakume talde bat ari da sloganak oihukatzen Tokion, energia eta industria ministerioaren atarian, azaroaren 3an. Aurrean daukate artilez osatutako haril handia, elkartasunaren ikurtzat. Fukushimako 100 Emakumeek egin deiar erantzunez bildu dira, inguru kutsatuetatik haurrak azkar ebakutzeko eta zentral nuklearrak ixteko eskatzeko. Azaro hasieran antzeko elkarretaratzeak egin dira munduko hiri askotan, hala nola New Yorken, Parisen, Britainiako Lannionen... Irudi txikia, berri, *Sortir du Nucléaire* elkarte frantsesari Nono marrazkilariak prestatu dio, Hexagonoko emakumeek Japoniakoekiko elkartasunez antolatu bilkuretarako. Hitzak ingelesez, frantsesez, bretoiez eta euskaraz daude ipinita, eta japonierazko aldarrria Britainiako janzkera tipikoz beztitutako amonak oihukatzen du.

Baina haurrak ebakutzeko bezain larria al da Fukushima hiriko eta oro har probintziako –eta inguruko beste eskualde batzuetako– ume eta gaztetxoek egoera? Tantaka bederik azalduz doaz Fukushimak eragindako erradiazioaren xehetasunak, hondamendia zenbaterainokoa izaten ari den erakutsiz.

Urrian ezagutu zen oraino Fukushimak airera eta itsasora isuri duten erradiazioaren neurria: 137 zesiotan 27.100 terabecquerel, denetara Txernobyngoak 1986an jaurti zuen guztia- ren %74. Eta Fukushimako erreaktoreek kutsatzen jarraitzen dute, erregaiz eta ondoko materialez osatutako *corium*ek gori segitzen baitute.

Mundu osoan barreariatuko da erradiazioa, baina parte handi bat Fukushima inguruetan erori denez hango partikulak barnatzen zaizkie jendei. Ahulenak diren umeen artean nabarmen antzematen dira ondorioak, udatik ari dira gurasoak bezala mediku batzuk salatzen.

Immunitate sistemak ahulduta

Uztailaren 14an Japoniako Gure Planeta –*OurPlanet-TV*– telebista kate independenteak *ContAct* programa berezia eskaini zien Fukushimako probintzian eta inguruko beste batzuetan erradioaktibitate handiaren eraginpean bizi diren hurrei: “Erradiazioek sintoma berriak era-



giten dituzte: zer ari zaie gertatzen haurrei?”. *Tokyobrownabby* sinatzen duen baten borondatezko lanari esker ingelesezko azpitoluekin ikus daiteke 25 minutuko saioa urritik, azaro hasieran frantsesezkoak gehitu dizkiote *Fukushima-over-bloge*-koek. Euskarazko azpitoluekin ikus daiteke Argia.com-en.

ContActeko arduradunek aurretik ikusleei eskatua zien etxeko osasunean aldaketarik nabaritu baldin bazuten jakinarazteko. Bostehun inguru gutun eta emailen bilduma erakutsi du saioaren aurkezleak. Gonbidatu du Mika Noro andrea, Txernobylerako Zubia elkartearen burua. Txernobyldik urtero haurrak atsedean hartzera Japoniara eramaten dituztenez, ondo ezagutzen

zitzen inguru kutsatuan bizi direnen sintomak. Telebistan esan duenez, martxoaren 11ko istripuaren ondoren berehala hasi zitzaizkien antzeko sintomen albisteak iristen.

Haurrak Erradiazioetatik Babesteko elkarteak antolatu zutenean, udaberrian, mediku talde bat jarri zuten jendearan kezka argitzeko, urduri zebiltzanak lasaitzeko, ezer baino gehigo. Baina uholdeka zetorkien jendea osasun arazoak kontatuz; mediku boluntarioei egin behar izan zieten dei. Bistakoa zen agintariak aitortu baino askoz erradiazio handiagoa zegoela bazterretan.

ContActekoak izanak dira kontsulta horietako batzuetan. Medikuek haurrei okozpean tiroideak handituta aurkitzen dizkiete, gura-

soek kontatzen diete umeak oso oso ahul daukatela, eztarriko minez sarri, sudurretik odol jario hasten direla edonoiz, beherakoak daukatela behin eta berriro...

Masamichi Nishio doktoreak, Hokkaidoko Kantzer Erakundeko buruak aitortzen du kamera aurrean haurren sintoma horiek erradiazio dosi apalen zantzu klinikoak direla. Garaia dela munduko agintariak kutsadura mota hau aitortu eta kontutan hartzeko.

Bitartean, erradiazio handia erori den lekuetako ospitaleetan askotan medikuek ez diete garrantziarik ematen sintoma horiei, edo erradiazioen eraginaren ezagutza faltagatik, edo agintarien mendekuen beldur direlako. Aldiz, Mika Noro eta bere taldeak herritarrei eskatzen diete ospitaletara jotzeko, diagnostikoaren eta egindako frogen agiriak ondo gordetzeko, etorkizunean garrantzizkoak izango direlako.

Modua daukan askok dagoenez alde egin du Fukushima inguruetatik. “Nahita joandakoak” dira hizkera ofizialean, paraje haietan bizitzea posible baita agintarien erabakiz. Mika Norok garbi zehaztu duenez, Fukushima inguruetan dagoena baino erradioaktibitate gutxiagorekin herri osoak ebakuatu ziren 1986an Txernobyl eskualdean.

Fukushiman diraubuten bizimodu gogorra da. Haurrena batik bat. Edonora joateko dosimetroa eraman behar dute aldean. Eguna nola datorren, askotan ez daukate jolasera ere irteterik kanpora. Internetez ikusi behar ko dituzu. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

